



## ARAUTEGIA

### EUSKAL PILOTA 2014

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Pilotako Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2014ko maiatzaren 24, 25 eta 31an Gasteizko Mendizorrotzako pilotalekuetan. Hona hemen arautegia:

#### **1. PARTAIDETZA**

Parte hartze ibilbidean 2000-2001 urteetan jaiotako haurrak.

Errendimenduari ekiteko ibilbidean: Eskuz binakako modalitatean 2000-2001 urteetan jaiotako infantil mutilak eta 2002 jaiotako alebin mutilak

Lau pilotari gehienez eta entrenatzaileak osatuko dute talde bakoitza.

Ordezko pilotariak, partiduan parte hartzeko aukera izango du titular bat kenduaz, horrela partaidetza sustatuaz. Dena den, aldaketa behin egingo da eta epaileari garaiz eta behar den bezala ohartaraziz.

Herrialde bakoitzean burututako eskolarteko txapelketetako irabazleek hartuko dute parte. Lehen fasea (herrialdeko eskolarteko txapelketa) jokatu ez bada, kasu horretan soilik lehiatu ahal izango dira azken txapelketa honetarako bereziki sortutako taldearekin. Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da denboraldi honetako eskolalizentzia indarrean edukitzea. Parte hartzaileak Txapelketara lizentzia eskolarra ekarri beharko dute.

## 2. MODALITATEAK

Parte hartzeko ibilbidea:

- Eskuz binakakoa, neskak eta mutilak
- Paleta goma, mutilak
- Paleta Goma, neskak
- Zesta Punta, mutilak
- Paleta Larruz Mutilak

Errendimenduari ekiteko ibilbidea:

- Eskuz binaka mutilak

## 3. JOKO-SISTEMA

Txanda bakarreko liga

Irabazitako partida bakoitzeko, bi puntu emango zaizkio taldeari; puntu bakarra galdutako partida bakoitzeko, eta punturik ez, taldea partidara bertaratzen ez bada.

Lehen sailkatua –alegia, liga burututa puntu gehien eskuratu dituen– izango da irabazlea. Hurrengo postuak, modu berean finkatuko dira.

Bi bikoteren edo gehiagoren artean puntu-berdinketarik gertatzen bada, berdinketa horretan daudenen arteko “tanto average” onenaren arabera zehaztuko da sailkapena.

Berdinketa bi bikoteren artekoa besterik ez bada, elkarren aurka izandako lehia irabazi zuena galtzailearen aurretik egongo da sailkapenean.

Bi taldek besterik ez badute parte hartzen, partida bakarra egingo da, eta bertan zehaztuko da bietarik zein den irabazlea.

Talde bakar batek izena emanaz gero, modalitatea bertan behera utziko da.

#### 4. **JOKORAKO MATERIALAK ETA ARAUAK**

Neurriak eta tantoak:

	<b>Eskuz binakako infantil mutilak parte hartzea</b>	<b>Eskuz binakako infantil mutilak errendimendua</b>	<b>Eskuz binakako alebin mutilak errendimendua</b>	<b>Eskuzkoa neskak</b>	<b>Gomazko Paleta Neskak</b>	<b>Gomazko Paleta Mutilak</b>	<b>Larruzko Paleta</b>	<b>Zesta</b>
SAKEA	10.50 m.	10.50 m.	8.75 m	7.00 m.	14.00 m.	17.50 m.	21.00m	28.00 m.
FALTA	10.50 m.	10.50 m.	8.75 m	7.00 m.	10.50 m.	14.00 m.	14.00m	14.00 m.
PASA-MARRA	21.00 m.	21.00 m.	17.5 m	17,50 m.	21.00 m.	24.50 m.	24.50 m.	22.75 m.
<b>TANTOAK</b>	<b>18</b>	<b>18</b>	<b>18</b>	<b>18</b>	<b>25</b>	<b>25</b>	<b>25</b>	<b>25</b>

- **Materialak (Pilotak):**

Euskadiko Pilota Federazioak ipiniko du jokorako materiala, eta ezaugarri hauek izango ditu:

- ESKU-PILOTA, MUTILAK PARTE HARTZEA IBILBIDEAN: pilota goxua.
- ESKU-PILOTA, MUTILAK ERRENDIMENDUARI EKITEKO IBILBIDEAN: pilota mistoa edo ukitu-erdikoa.
- ESKU-PILOTA, NESKAK: pilota goxoa
- PALETA GOMA: puntu edo karratu horiko pilota.
- PALETA GOMA: puntu edo karratu horiko pilota.
- ZESTA PUNTA: ohiko pilota, 100-110 g bitartekoa.
- PALETA LARRUZ: Cervino nº 1.

Osagarriak dituzten modalitateetan, jokalaria bakoitzak bere “paleta”, “zesta”, “kaskoa”,.... eduki beharko ditu. Paleta goma eta Larruzko paletan babeserako betaurrekoak nahitaezkoa izango dira, aurrelari eta atzelarientzat. ( parte hartzailearen batek ez baditu betaurrekoak ekartzen, antolakuntzak utziko dizkio partidarako).

## **5. SARIAK**

Dominak emango zaie modalitate bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuei.

Horrez gain, opariak emango zaizkie partehartzaile guztiei.

## **6. EZBEHARREN AURREAN.**

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeron nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

## **7. AZKEN OHARRA**

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2014ko urtarrilaren 3ko AGINDUA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2014ko urtarrilaren 14ko EBAZPENA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f. Pilotako Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeron, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.